


MUNOA BASERRIA
C MAILA

IGARA BIDEA 120



Egile eta data ezezagunak

Deskribapena

Harlangaitz horma entokatuzko eraikuntza. Eraldaketa batzuk igartzen zaizkio baoetan (batez ere, behe oinekoetan). Gainera, hormigoizko balkoi berri bat dago, eta alboko eranskin bat estalkiaren luzapen gisa. Atzeko fatxadari beste gorputz txikiago batzuk eransten joan zaizkio nekazaritza jarduerarako. Fatxada horretan, lehen solairurako karga-sarbidea mantendu da. Aipatzekoak dira estalki faldioen luzapena (lehen oinaren azpitik jaisten da), fatxada nagusiko harlanduzko azpadurak eta atzeko fatxadan kokatutako arku baten harrizko dobelak.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena:
 - A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: balkoia; eraikin nagusiaren eranskinak.
 - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlandu elementuak; arkuak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.